

# Kostuen egitura:

Proiektua martxan jartzeko hainbat kostu izango ditugu eta kostu hauek ordaindu ahal izateko ahalmena izan beharko dugu. Horregatik, kostuak lau ataletan banatuko ditugu: kostu finkoak, kostu aldakorak, kostu zuzenak eta zeharkako kostuak.



- **Kostu finkotzat** hartuko ditugun gastuak: bankuari eman behar diogun diru-zorra maileguaren truke, webgunearen hostinga, aliantza Leroy eta Bricomart-ekin baita pabiloiaren alokairua ere izango dira.
- Halaber, kostu aldakorra gisa hartuko ditugun gastuak: Recytrans-eri eman beharrezko diru-kantitatea eta elektrizitatearen fakturak, esaterako, izango dira. Faktura hauek produktuaren ekoizpen-ahalmenaren arabera direlako.



Bestalde, kostu zuzen moduan hartuko ditugun gastuak ia guztiak izango dira, izan ere, bakarrik arlo bati eragiten diotelako: Ekoiztuko dugun produktuari. Hala ere, zeharkako kostuak egongo dira, argia edota gure dibidendoak, bazkide bezala. Hau, arlo bati baino gehiago eragiten dieten gastuak direlako.

Azkenez, behar dugun inbertsioa ez da oso handia izango. Egia da diru kopuru dezente bat ipini behar dugula, baina, gure kalkuluen arabera eta behar ditugun kostuen arabera, 24.000€-koa izango da. Lau bazkideak garenez, bakoitzak 6.000€-ko ekarpena egingo du. Amai dezagun esaten, bakoitzak haren maileguaren erantzunkizun osoa edukiko duela, ez enpresak.

